



Martxoak 8, Debako Udalaren adierazpen instituzionala

Urtero bezala, aurten ere, Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna aldarrikatu nahi dugu Deban. Emakume guztien eskubideak aldarrikatzeko eguna da gaurkoa, baita gure jendartearen egoeraren inguruan hausnartzeko eguna ere. Azken urteetan feminismoaren balioek pertsonen eguneroko bizitzan botere eraldatzailea izan dute eta hori balioan jarri nahi dugu, izan ere, guztion ongizatean eragin zuzena du.

Berdintasun politikak ezinbestekoak dira jendarte berdinzaleagoa eraikitzeko. Horregatik, berdintasunean aurrera pausoak emateko helburuarekin, Debako Udalak hainbat ekimen jarri ditu abian azken urte honetan. Debako zaintza ekosistema horietako bat da, zeinaren bidez udalerriko adinekoen eta zaintzaileen beharrei eraginkortasunez erantzungo dien sistema bat sortuko den. Gainera, aurten, Berdintasunerako I. Barne Plana burutuko du. Plan horren bitartez administrazioaren egituraren eta kudeaketaren emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagerrarazteko neurriak zehaztuko dira, besteak beste. Aipatzekoa da, baita ere, Debako mugimendu feministak, berdintasunaren eta indarkeria matxistaren aurkako borrokan, urte guzti hauetan egin duen lana.

Aurrerapauso handiak egin diren arren gure jendarte honetan oraindik ere desberdintasun handiak daude emakumeen eta gizonen artean eskubideak, boterea, baliabideak eta onurak lortzeko eta gauzatzeko orduan. Hori dela eta, Debako Udalak ondorengo konpromisoak hartuko ditu berdintasunarekiko duen ardura adierazteko:

- Herritarren artean indarkeria matxistari aurre egiteko programak garatzea.
- Tokiko arreta- eta koordinazio-protokoloak eguneratzea eta dauden protokoloen jarraipena egitea.
- Zaintzaren inguruko lanketa egiten jarraitzea Debako zaintza ekosistema sortzeko.
- Udaleko Berdintasunerako I Plana gauzatzeko, zeinaren bidez Debako Udalean emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko den.

Azkenik, jakinarazi nahi dugu Debako Udalak elkarretaratzea egingo duela martxoaren 8an eguerdiko 12:00etan. Halaber, debarrei dei egiten die martxoaren 8a dela-eta gure herrian antolatuko diren mobilizazio eta ekintzetan parte hartzeko.